

**TOPEKA**

Martin Kortazarren heriotzak herri guztia astindu zuen. Ez hainbeste heriotzak, nola gertatu zen izan zen jendea asaldatu zuena.

Martin Kortazar eta Miel Kortabarria zaleak izan ziren apustueta, izan pilota, izan idi-demak, izan ahari probak... Denbora hura, ordea, joana zen isil antzean, eta horrexek berak bihurtu zuen gertaera sinesgaitz Martin Kortazar eskopeta tiroz paparra lehertuta agertu zenean.

Herriko alde desberdinetan zituzten baserriak. Haitzandiri aurpegia emanez Martin Kortazarrena eta bizkarra ematen ziola Miel Kortabarriarena, goizeko lehen printzek eta arratseko azkenek goxatzen zituztela. Behiak kenduta, dozena pare bateko artaldetxoak gobernatzen zuen artzain denbora hobeak ezagututako Martinek. Handiagoa zuen Mielek, baita behi saila ere; goizero bertaratzen zitzaion esnearen kamioia.

Eta artalde bakoitzak bere aharia.

Apustuen sasoi hark, ordea, utzia zuen hondarra. Martin Kortazar astean hirutan hasi zen jartzen aharia hartarako presatu zion tramankuluari topeka. Aspaldiko ohiturari jarraituz, bi ontzi betetzen zituen pattarrak, bai ahariak bai berak ausardi puntua hartzeko aitzakiarekin.

Haitzandiri bizkarra ematen ziola, Miel Kortabarria jabetua zegoen urrun baina aurrez aurre ikusi abartzen zuenaz, eta

haizeak hazia eramaten duen moduan, irrika sortu zion ikusi baino igartzen zuen hark. Iluntzean, behiekin amaitutakoan, aharia baserrira inguratzen hasi zen, seme zaharrenak lagun-duta. Ondo trebatzeko asmoz, lauzpabost kilometro egin arazten zizkion, korrika edo pauso bizian, bi egunez behin, gehiegi nekatu edo leher eragin gabe.

Batak tramankuluari adarkadak ematen zizkion bitartean, bigarren ahariaz jabetu zen Kortabarria, senak gain eginda, igartzen hasia zenari aurre hartzeko asmoz.

Gauzak hala, apirileko feria egun batean, Zamora-eneako arbel ilunean agertu zen idazkia: ahari desafioa, hamar mila pezeta jokoan. Sinadura garbi, Miel Kortabarriarena.

Izan zen zeresana hurrengo egunetan. Izan ere ahari-jokoak debekaturik zeuden erregimen berriaz geroztik, eta Azpeitian bakarrik jokutzen ziren, erdi isilka. Ahaztuak ziren ordurako 1912ko otsailaren 20koa bezalakoak, Tolosako zezen plazan 3.000 lagun bildu zirenekoak, Astigarreta eta Altzoko bi ahari famaturen arteko desafio gogorra ikustera.

Luze joan zitzaion astea, eta hurrengo feria egunean goiz hurreratu zen Zamora-eneara. Tabernariaren aurpegian irakurri zuen begirada arbelera eraman aurretik. Onartu gabe jarraitzen zuen apustuak.

Eguerdirako, ordea, zabaldua zen zurrumurrua. Bazkal aitzakian sartu zen Miel Kortabarria tabernan. Hantxe ageri ziren klarionaz idatzitako hiru hitz: onartua, bata; beste biak letra okerrean egindako sinadura: Martin Cortazar.

Garizuma baino luzeago egin zitzaion Mieli hurrengo astea. Feria egunean, goizeko hamarretan geratuak ziren apustuaren nondik norakoak zehazteko.

Kortazarrek ez zirudien berotuta, edo zetorren borrokak asaldatuta; lozorrotutako aurpegia erakusten zuen, tristura pixka baten eta ahariarekin partekatzen zuen pattarraren era-

ginez. Gizon bakartia zen, inoiz izan omen zuen emakume bat, baina aspaldi hartan bakarrik bizi zen, aurrera egiteko nekeak jota. Urduritasunak igurtzita baina burua tente sartu zen Kortabarria, harrotasuna izan nahi zuen harrokeriaz zipriztinduta.

Miel Kortabarria arratsalde erdian etxeratu zenean, pata-rrak apur bat endredatuta eta apustuaren nondik norakoak murmurka burmuinean zerabiltzala, behiak jezten ikusi zuen andrea. Ez zion begiratu, ez zion galdetu. Esnea marmitara pasatzen ari zela bota zion, hotz: azpiak ere egin beharra dau-de! Seme zaharrenaren berri galdetu zionean ere ez zuen erantzun gozoagorik jaso: ditxosozko ahari horren bila joana da. Eta arnasa hartzeko tartea besterik ez zuen behar izan errematatzeko: badauka zerekin bete burua, txolinkeriak baino aurreragokoak baditu!

Kortazarren aberastasunak jakin mina sortzen zion Kortabarriari. Ezkutuko diru-usaina hartzen zuen eta gehiago jokatu ez izanaren damuak ziztatu zuen. Errentan eta xume bizi bazen ere, garai batean egindakoa gordeak behar zituela sine-tsita zegoen, ez koltxoiaren azpian, baina bai baserriko zirrikituren batean. Irabazi beharra zeukan, garai batean egin ohi zuen bezala, eta diruarekin zer egin ere pentsatzen hasia zegoen. Hurrengo bueltan, orde, miseriak jota ikusten zuen Kortazar, txoritxikirik gabe. Holakoetan, “ez badit ordaintzen tiro bat emango diot” errepikatzen zion ahots batek bere buruan.

Entrenamendu saioaren ondoren hitz egin zion ahariari, borrokara doan soldaduari egiten zaionaren antzera, hauspoari eragin eta burua berotuz, eta, igurtzi batzuen ondoren, zepilua pasatu eta jaten ondo emateko agindu zion seme zaharrenari.

Haitzandiren beste aldean, ahariaren arnasa entzuten zuen Martin Kortazarrek. Maitasunez begiratzen zion animalari, isil,

haitzen zirrikituetan pentsamendua galduta. Sokatik tira egin eta hurbildu zuen. Muturra lehenbizi, adarrak ondoren, bizkarraldea laztandu zion, beherago bihotza danbaka sumatu zuen ingurura arte. Aurpegira hurbildu eta hitz egin zion: hire adarretan zagok bion etorkizuna. Ahariak besoak luzatu zituen, burua mugitu eta lurrean etzan zen, zerbait jaten balego bezala; gero, txoko batean kikildu eta sokari tira egin zion, zerbaiten esperoan. Pattar botila eta bi ontzirekin itzuli zen Kortazar.

Gau atsegina zen, barea. Pattarra edanaz, ahariari begirik kendu gabe eta pentsamendua pipiak jotzen hasitako ezkaratzeko habetan zuela jarraitu zuen erdi lo, ia egunsentira arte. Lehen argi printzekin animaliak tira egin zion sokari, artaldera itzuli nahiko balu bezala.

Zortzi kintzetara jokatu zuen apustua. Lehenengo lau botaldiak motzean egingo ziren; eta ondorengo laurak hirugarren epaileak agindutako arrastotik, luzean.

Ezusteke galanta jaso zuen Kortabarriak: joko hasteko beldurrez edo, ihesari eman zion bere ahariak. Ez zuen hasiera ederra izan. Adarretatik heldu eta muturra igurtziz hitz egin zion. Bigarren aukera izango zuen. Borroka motzerako prestatu zuen, baina hasierak lehia gogoragoak gogorarazi zizkion: Oiartzungo Mendiolaren "Txato"k irabazteko behar izan zituen 156 kolpeak edo Aiako Amunategiren ahariak behar izan zituen 225ak Armendiarenari apustua irabazteko.

Arautegia gogorarazteko aprobe txatu zuen epaileak: ahariak gutxienez lau kolpe ematen ez bazizkioten elkarri, apustuari zegokion sarrera-dirua Udaletxerako izango zen.

Ez zuten zortzi borrokaldiren beharrik izan. Hirugarren kintzerako erabakita zegoen erabaki beharrekoa. Kortazarren ahariari odola zerion burutik eta noraezean zebilen, ezinean, epaileak amaitutzat eman zuenerako.

Kortabarriak aharia besarkatu zuen, estu. Jendearengana hurreratu eta besoak jasotzen zituen, irabazle. Dirua bere alde jokatu zutenek besarkatu egiten zuten, zaratatsu eta izerditsu. Luze iraun zuen mozkorraldiak.

Lurrean etzanda geratu zen Kortazarren aharia. Odol mindu usaina zerien ebaki larriei. Gizon bat hurbildu eta aharia albo batera mugitzen lagundu zion. Aho zabalik eta lastima erakutsiz begiratzen zioten inguratutakoek. Zerrautsa bota zuen odolaren gainean. Hurrengoan izango da, esan zion gizonak. Baina hurrengorik ez zen izango, apustua galdu duen ahariak ez baitu beste jokorik egiterik plaza ondorengo hiru hilabeteetan.

Zauriak sendatu zizkionerako, gauaren zilborrean iltzatu-tako ilargiak zilarrezko taloa zirudien. Pattar botila atera zuen, ontzirik gabe. Muturrean sartu zion ahariari, baina atzeraka egin eta parrastada bota zuen lurzoruan. Eskumuturrak igurtzi eta dzangada luzea eman zion Martin Kortazarrek zumezko aulkian botata. Bigarren zurrupadak zintzurra eta bularralde osoa erre zizkion. Ahariaren alboan hartu zuen lo, zaurituta.

Miel Kortabarria Zamora-eneara sartu zenean, artean idazkia irakur zitekeen arbel ilunean. Beste behin, galdetu aurretik irakurri zuen erantzuna tabernariaren aurpegian, ordaindu gabe jarraitzen zuen apustuak. Mostradorekoak gonbidatu zituen eta, berotasunak mingaina laxatuta, buruan errepika zerbilkion ahotsa irten zitzaion kanpora: datorren asterako ez badit ordaintzen tiro bat emango diot. Eta inork sinetsi ez bazien ere, hoztu egin zen taberna giroa.

Mailoan gora egin eta begiratzea nahikoa izan zuen konturatzeko: ez zen mugimendurik sumatzen Kortazarrenean. Aharia ere ez zuen nabarmentzerik lortu. Kopetilun, azpiak egite-ra abiatu zen, andreak deitu aurretik.

Luze, oso luze egin zitzaion feria egunerako tartea. Ezin lorik eginda eta marmarrean pasa zuen astea Kortabarriak. Gi-

zonak hitza bete behar duela esanaz, eskopeta fundan zuela sartu zen Zamora-eneara. Tabernariak harridura ikurra idatzi zuen betartean. Ez kezkatzeko, izutu besterik ez zuela egin nahi, hitza betetzeko dela gogorarazi. Kanpoan uzteko eskatu zion tabernariak. Zain geratu zen, mostradoreari begira, buru makur, Kortazar noiz sartuko.

Kartutxoaren leherketa lehorra izan omen zen, sendoa. Goizean goiz Haitzandira zihoazen bi mendizalek entzun eta baserri aurretik pasatzean ikusi zuten gorputza, oraindik bizirik. Gurdian sartu eta ekarri zuten mediku-etxera. Haiek izan ziren abisua eman zutenak. Sua nola, halaxe zabaldu zen herrian. Martin Kortazar hilda zegoen eskopeta tiroz paparra lehertuta. Alboan ahari bat omen zuen, zauriz josita. Hura ere hilik.

Jendeak mediku-etxerantz egin zuen, Martin Kortazar hilik zegoela jakiteak astinduta. Eta heriotzak berak baino nolakoak asaldatu zuen. Heriotzari arrazoien bat bilatu nahian zihoan jendea kalean behera, pauso motzean, marmarka, erlategia zirudiela.

Miel Kortabarriak taberna utzi eta eskopeta fundan zuela ekin zion kalean gora. Harritu egin zuen jende andanak. Ez zuen ulertu nora zihoazen. Goiko kalera heldu zenean, atzeratutako hiruzpalau lagun ikusi zituen. Geratu egin zen haie-tako bati galdetzeko, nora zihoazen, zer gertatu zen.

*Joxemari Urteaga*